

ADOS AHOLKU BATZORDEAREN BILERA

ADOS Aholku Batzordea 2026ko ekainaren 06an, larunbatean, bildu da. Topaketan, lan-agendaren azken garapenak aurkeztu dira eta Euskadiko komunitate islamikoarentzat interesgarriak diren gaiak jorratu dira.



BERRI LABURRAK

EUSKADIKO ERLIJO-ANIZTASUNAREN KUDEAKETARAKO EKINTZA PLAN BERRIA

Joan den martxoaren 23an, Eusko Jaurlaritzak Euskadiko erlijio-aniztasuna kudeatzeko 2026-2029 Ekintza Plana aurkeztu zuen.

Plana “laikotasun kooperatiboaren” ereduan oinarritzen da; hau da, erakunde publikoen izaera ez-konfesionala eta erlijio-konfesio ezberdinekin duten lankidetzeta instituzionala uztartzen ditu.

Testuak 15 jarduera-ildo jasotzen ditu, eta proposatutako ekintzak gidatzen dituzten printzipioak honako hauek dira: berdintasuna eta diskriminaziorik eza bermatzea, pluralismoa balio demokratiko gisa ulertzea,

elkarrizketa eta bizikidetzeta sustatzea, gutxiengoaren babes berezia eta edozein eskubide-murrizketatan proportzionaltasuna aplikatzea.

Aurkezpen horren harira, Euskal Erlijioen Arteko Kontseilua sortzeko prozesuaren bilakaeraren berri ere eman zen. Kontseilu hori uda baino lehen martxan jartzea aurreikusten da.

Informazio gehiago [hemen](#).



ERLIJIO-GAIETAN JARDUNA HOBETZEKO JARDUKETA PROTOKOLO OROKORRA

Erljio-aniztasunaren arloan, Eusko Jaurlaritzak beste jarduketa bat ere egin du: joan den martxoan Euskadin erlijio-askatasunaren kudeaketa hobetzeko Jarduketa Protokolo Orokorra sinatzea onartu zuen. Protokolo horrek lankidetzaz ezartzen du Eusko Jaurlaritzako Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoko Sailaren, Espainiako Gobernuako Erljio Askatasunaren Zuzendaritza Nagusiaren eta Pluralismoa eta Bizikidetzaz Fundazioaren artean.

Herritarren erlijio- eta kultu-askatasunerako eskubidea modu eraginkorragoan eta zabalagoan bermatzeko asmoz, hiru erakunde sinatzaileek informazioa trukatu dute erlijio-erakundeei buruz, bereziki Erljio Erakundearen Erregistroaren eta Euskadiko Erljio Maparen bidez. Era berean, jarduera hauek koordinatu dituzte: erlijio-erakundearen prestakuntza, tokiko gobernuei aholkularitza ematea eta erlijio-askatasunaren erabilera eraginkorra hobetzeko azterlanak, materialak eta baliabideak prestatzea.

Gainera, hiru erakundeetako ordezkariak osatutako jarraipen-batzorde bat sortuko da, protokoloaren garapena gainbegiratzeko urtero bilduko dena.

Informazio gehiago [hemen](#).



KORRIKA 2026 KULTURA-ANIZTASUNAREN ALDE

2026ko Korrikak, martxoaren 19tik 29ra bitartean egin zenak, kultura-aniztasuna ospatzeko bi ekimen izan zituen.

Lehenengoa, Eusko Jaurlaritzako Immigratutako Pertsonen Harrera eta Integrazioarako Zuzendaritzak sustatua, hiru hiriburuetatik igarotzean ibilbideko hiru kilometro gordetzean oinarritu zen. Tarte horietan, herritarrek euskararen eta kultura-aniztasunaren alde egin zuten korrika.

Bigarrenean, Zestoako neska musulman batzuk gonbidatu zituzten lekukoa eramatera lasterketa herritik igaro zenean.

Aurten, lekukoaren barruko mezu sekretua honako esaldi honekin hasten zen: «Euskara gara, eta hemen gaude». Aurrerago, honela zioen: «Euskara gara, diogu; ez “euskara naiz”», ikuspegi komunitarioa azpimarratuz, “gara” indibiduala den “naiz” baino lehenetsiz.

Mezua gonbidapen honekin amaitzen zen: “Aurrera goaz. Zatoz?”



KOMUNITATE MUSULMANAK BILBOKO XI. OGI FESTAN PARTE HARTU DU



Joan den apirilaren 25ean, Bilboko Irala eta Ametzola auzoek Ogi Festaren bederatzigarren edizioa ospatu zuten, jarduera-programa askotarikoarekin.

Ogia ardatz hartuta, munduko hainbat txokotako ogien erakusketa eta dastaketa egin zen. Jardunaldiak gastronomia gaitzitu zuen, eta tailerrak nahiz zuzeneko musika-emanaldiak eskaini zituen.

Komunitate musulmanak parte-hartze nabarmena izan zuen hainbat guneren bidez: ogi eta arabiar enpanadak egiteko tailerra, arabiar kaligrafia eta henna bidezko tatuaje artistikoak, eta Rekaldeko Meskitako Nesken Abesbatzaren emanaldia. Bertan, beste obra batzuen artean, Mikel Laboaren «Txoria Txori» interpretatu zuten.

Jardunaldiak, auzo horien errealitate kulturaliztun eta belaunaldiartekoaren isla izanik, jatorri eta adin ezberdinetako pertsonak elkartzeko balio izan zuen.

ONGI ETORRI MUSAWA

ADOS Batzordetik ongietorria ematen diogu Euskal Herriko Emakume Arabiar eta Musulmanen Elkarteari, MUSAWari. Elkartearen aurkezpen ofiziala joan den ekainaren 5ean egin zen Bilbon.



ADOS Eusko Jaurlaritzak sortutako Aholku Batzordea da, euskal erakunde eta Euskadiko komunitate islamikoen arteko lankidetzaz sustatzeko. 2018ko apirilaren 14an eratu zen. Harrezkero, urtean hainbat aldiz bildu da. Batzorde honetan euskal erakunde guztiek eta komunitate islamikoak osatzen dituzten pertsona guztiek hartzen dute parte. Biler horietan bizikidetzaz sustatzeko lan egiten da, eta Euskadiko komunitate islamikoen arazoei irtenbideak bilatzea da helburua.